

Hizkuntza-komunitateak harremanetan Euskal Herrian: balio etikoetan oinarritutako diskurtsoaren beharra

**Relaciones de las comunidades lingüísticas
en Euskal Herria: la necesidad de un discurso
basado en valores éticos**

**Relations entre les communautés linguistiques
en Pays Basque : nécessité d'un discours basé
sur des valeurs éthiques**

**Relations between language communities
in the Basque Country: the need for a discourse
based on ethical values**

JUARISTI, Patxi

Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco (UPV/EHU)

Noiz jaso: 2017-02-28

Noiz onartua: 2017-07-17

Euskera. 2016, 61, 2. 375-406. Bilbo
ISSN 0210-1564

Euskaraz bizi direnen eta erdaraz bizi direnen arteko gatazka guztiz gainditzea ezinezkoa dela onartuta ere, iruditzen zaigu posible dela hauen arteko bizikidetzaz hobea izatea. Horretarako, ezinbestekoa da arau argiak izatea. Baina arau horiek barneratuak eta errespetatuak izateko, balio etikoetan oinarritutako diskurtsoa behar da. Artikulu honetan, diskurtso berri horrek izan beharko lituzkeen berezitasunak aurkezten ditugu.

Hitz gakoak: Euskara, etika, bizikidetzazko linguistikoa, diskurtsoak.

Aún reconociendo que es imposible superar del todo la confrontación entre los que viven en euskera y los que lo hacen en castellano; si nos parece posible mejorar la convivencia entre ambos. Para ello es necesario tener claras las reglas de juego, y para que estas reglas sean interiorizadas y respetadas, hace falta un discurso basado en valores éticos. En este artículo presentamos las características que debiera tener ese discurso.

Palabras clave: Euskera, ética, convivencia lingüística, discursos.

Même si nous reconnaissons qu'il est impossible de dépasser les confrontations entre ceux qui vivent en basque et ceux qui vivent en espagnol, il nous semble possible d'améliorer la coexistence entre les deux. Il est pour cela nécessaire que les règles du jeu soient claires, et, pour que ces règles soient assimilées et respectées, un discours basé sur des valeurs éthiques est nécessaire. Nous présentons dans cet article les caractéristiques que devrait avoir ce discours.

Mots-clés : Basque, éthique, convivialité linguistique, discours.

While recognising that it is impossible to entirely overcome the confrontation between those who live in Basque and those who do so in Spanish, it does seem to us that coexistence between them can be improved. To do this the rules of the game must be clear, and for these rules to be accepted and followed, a discourse based on ethical values is needed. This paper outlines the features this discourse should have.

Keywords: Basque, ethics, language coexistence, discourse.

Etikak kontzientziaren arabera jokatzera eta modu kritiko eta zintzoan norberaren eta besteen ongia bilatzera bultzatzen gaitu. Zentzu honetan, guk ere bat egiten dugu Ayerbek eta Garmendiak ematen duten etikaren definizioarekin: «Nos referimos al ethos o a la ética en su sentido más original, incluyendo en su significado la responsabilidad de actuar en conciencia buscando verdaderamente el bien y comportándose consecuentemente ante opciones concretas en cumplimiento de deberes. El ethos supone, en tal sentido, la búsqueda honesta y crítica de lo verdaderamente mejor para sí y para su(s) comunidad(es)» (Ayerbe eta Garmendia, 2003:6).

Etikaren definizio honetatik abiatuta, artikulu honen helburua da bizikidetza linguistikoari loturiko galdera hauen inguruan gogoeta bultzatzea:

- Bizikidetza linguistikoa bizikidetza sozialaren zutabeetariko bat dela kontuan hartuta, nola ahuldu hizkuntza-gatazka Euskal Herrian? Nola hobeagotu hizkuntza-bizikidetza?
- Zeintzuk izan daitezke gure arteko elkarbizitza linguistikoari dimentsio etiko-morala eman diezaioketen balioak? Zeintzuk izan daitezke hizkuntza gatazka ahultzeko hedatu, indartu edota partekatatu beharko genituzkeen balio etiko-moralak?
- Nola lortu hizkuntza-bizikidetza hizkuntzek bizi duten errealitateari buruzko definizio desberdinak baditugu edota bakoitzak bere egiak eta aurreiritziak babesten baditu?
- Nola errespetatu euskararen alde eta aurka daudenen borondateak? Nola ziurtatu hizkuntza-bizikidetza, batzuk euskaraz bizitzeko aukerarik ez dutela badiote eta besteek euskararen aldeko politikek baztertzen dituztela sentitzen badute? Nola uztartu gizabanakoek eskubide linguistikoak eta hizkuntza-komunitateenak?
- Nola lortu hizkuntza-bizikidetza, euskararen eta erdararen aldekoek elkarrenganako ezagutza, elkar aitortza edota harreman gutxi badute?
- Nola normalizatu euskararen egoera, batzuen ustez euskararen aldeko politikek desberdintasunak sortzen dituztela badiote?

Galdera hauei guztiei erantzuteko, hizkuntza-gatazkaren teorian oinarrituko gara¹. Izan ere, gure ustez, teoria honek baliabide eta oinarri egokiak ematen dizkigu Euskal Herrian elkarrekin bizi diren hizkuntza-komunitateen arteko tentsioak edota gatazkak ulertzeko, baita hauek gainditzeko balio etikoek eskaini dezaketena ulertzeko ere.

1. Hizkuntza-ukipena eta hizkuntza-gatazka

Gizarte batean bi hizkuntza edo gehiago ukipenean daudenean, hauen arteko desoreka, gatazka edota lehia sortzen da, hizkuntza bakoitzak funtzio edota erabilera-eremu berriak eskuratu nahi izaten dituelako edota lehendik dituenak babestu edota hedatu (Calvet 1987 eta Mollà 2002)².

Fishmanen ustez, hizkuntza-funtzioen banaketarik gabe (adibidez, bata funtzio formaletarako erabiltzen denean -administrazioan, hezkuntzan, hedabideetan...- eta bestea informaletarako -familian, lagunartean...-) orekatutako gizarte elebitasun egonkorra lortzea ezinezkoa da. Izan ere, hiztun elebidunek bi hizkuntzetatik bat alboratuko dute, pragmatismoaren ize-

¹ Gizarte-ordena azaltzeko bi paradigma nagusi daude Gizarte Zientzietan: adostasunarena eta gatazkarena. Bi korronte, ildo teoriko edo ikuspuntu hauek hizkuntzen edota hizkuntza-komunitateen arteko ukipena aztertzerakoan ere agertzen dira. Alegia, soziolinguista batzuk hizkuntza-komunitateen arteko harremanak adostasunean oinarritzen direla azpimarratzen duten bitartean, beste batzuk diote gatazkan oinarritzen direla. Adostasunaren teorikoen arabera, gizarte batean hitz egiten den hizkuntza bakoitzak (azpistema bakoitzak) bere funtzioa eta tokia (txoko ekologikoa) lortu behar du ekosisteman, eta guztiek, hizkuntza txiki zein handiek, elkarrekin, eta modu integratu, jasangarri eta erregulatuan lan egin behar dute. Hau da, hizkuntza guztiek inguruan dituzten beste hizkuntzekiko zein bizi diren testuinguruarekiko egokitu behar dute. Horrela lortuko dute oreka, harmonia, egonkortasuna edo kohesioa. Aldiz, funtzioak ondo betetzen ez dituzten hizkuntzek desagertzeko arriskua dute.

Gatazkaren teorikoen ustez, elkar ukitzen ari diren hizkuntza-komunitateen artean berezkoak dira gatazkak, tentsioak, desadostasunak edota eztabaidak. Izan ere, bizitza gatazka hutsa da. Are gehiago, gatazkak aldaketa sozialaren motorra izan daitezke; berrikuntzarako edota garapenerako energia (Dahrendorf, 1966: 205).

² Merezi du irakurtzea Soziolinguistika Klusterreko Battittu Coyos-ek hizkuntza ukipenari buruz Auñamendi Eusko Entziklopedian daukan lana: <http://www.euskomedia.org/aunamendi/ee152063/137078>

nean, funtzionmultzo edota erabilera-eremu berarentzako bi hizkuntza behar ez dituztelako (Fishman, 1972).

Mollàren arabera ere, gatazkarik gabeko gizarte elebitasuna lortzea ezinezkoa da, normalean hizkuntza-komunitateen artean mendekotasun harremanak izaten direlako³; hau da, komunitate linguistiko bat bestearen gainera egoten delako, arrazoi sozial, ekonomiko edota politikoengatik, eta horrek hizkuntza-komunitateen arteko desoreka sortzen duelako (Mollà 2002)⁴.

Txepetxek ere aipatu ditugun bi autoreen bidea hartzen du. Bere hitzetan, hizkuntza batek funtzio edota erabilera-eremu gehienak eskuratzen dituenean, diglosia glotofagikoa sortzen da; eta horrek esan nahi du menderatutako hizkuntza desagertu egingo dela menderatzailearen presioaren eraginez (Sanchez Carrion, 1987:346-347).

Honela, bada, onartu beharra dago hizkuntza komunitateen arteko harremanak ondo araututa ez badaude edota gutxitutako hizkuntzen aldeko politika publikoak behar bezala bideratzen ez badira, ukipenean dauden hizkuntzak zero baturako joko batean aritu daitezkeela (batek irabazten duena besteak galtzen du), eta horrek hizkuntza-gatazka, desoreka edo lehia

³ Paulo Iztuetak zioen bezala: «Gure tesia da, gizarteko harremanak, izan, gatazkatsuek direla, eta hala direla, gizarteko harremanetan interes kontrajarriak aurkitzen direlako eta, modu batera edo bestera jokatzeko orduan, talde desberdinen motibazioak desberdinak izaten direlako. Boterea zeinek izan, hark kontrolatzen ditu gizarte-harreman horiek. Boterea duenak bere legea inposatzen du beste guztien gainera, hari kontra egin ala ez. Botereak obediencia eskatzen du. Horregatik, hizkuntza –euskara- guztioi dagokigun zerbait dela eta, ezin dela politizatu esaten denean, behin eta berriz esan ere, zerbait irrealala predikatzen ari gara. Hizkuntza-politikaz mintzatzen garenean, intelektualek etikan ez da aizu soineko literarioz edo poetikoz jantzitako edozein diskurtso egitea, akademikoa baizik, kasu honetan Soziolinguistika edo Hizkuntza Soziologiako iturrietan oinarritzen dena» (Iztueta, 2003:47).

⁴ Jean-Baptiste Coyos-ek dioen bezala: «Mollàren ustez, hizkuntza-gatazka gainditzeko aterabide bakarra da hizkuntza-lurraldetasuna finkatzea (2002: 150); hizkuntza gizarte-egoera guztien erabilera-hizkuntza izatea, gizartearen bizitzako eremu publiko guztien hizkuntza. Mollàren esanetan horrek beste hizkuntzaren itzulera inplikatzeko du (ibid.). Elebitasunaz eta diglosiaz hauxe da bere konklusioa: *Gizarte-erabilera elebidunaren faltsutasunak eta elebitasun indibidualaren aldebakarrekotasunak erakusten dute elebitasuna irrealala, mitikoa dela* (2002: 159) (Coyos, 2010:167).

sortzen duela (Calvet 1987; Mollà 2002; Auñamendi Eusko Entziklopedia); eta muturreko egoeretan, hizkuntzen desagertzea gerta daitekeela.

Europar Batasuna osatzen duten 28 herrialdeetan, hizkuntzen arteko uki-pena edota gatazka kudeatzeko bost eredu daude:

- Konstituzioan hizkuntza ofizial bakarra onartzen duten estatuak: Frantzia, Lituania, Letonia, Estonia, Polonia, Eslovakia, Grezia, Bulgaria, Errumania eta Kroazia.
- Hizkuntza ofizial bakarra onartzen duten estatuak, baina estatuaren zenbait zonalde edota eskualdetan beste hizkuntzen bat edo batzuk onartzen dituztenak: Suedia, Eslovenia, Hungaria, Portugal, Txekiar Errepublika, Britainia Handia, Austria eta Alemania.
- Zonalde edota eskualde batzuetan hizkuntza koofizialak onartzen dituzten estatuak: Espainia, Danimarka, Herbehereak eta Italia.
- Hizkuntza federazioak: Belgika. Hitzunek ez dituzte ofizialak diren hizkuntza guztiak (frantsesa, nederlandera eta alemanera) ikasten, bakkarririk bizi diren eremuko hizkuntza ofiziala, hiru hizkuntzok estatuko lurraldearen zati batean baino ez direlako ofizialak.
- Estatu eleaniztunak: Finlandia, Irlanda, Luxenburgo, Zipre eta Malta. Kasu honetan, hizkuntza guztiak dira ofizialak eta hiztunak hizkuntza ofizial guztiak ikastera behartuta daude.

Teorian behintzat, estatu eleaniztunetan beste lau eruedetan baino hobeto ziurtatzen da hizkuntzen arteko oreka edota hauen biziraupena. Dena dela, kasu horietan ere, ezin da hizkuntza-gatazka guztiz saihestu, ia gehienetan, hizkuntza batek besteek baino funtzio edota erabilera-eremu gehiago izaten dituelako. Hau da, estatu eleaniztunetan ere, gizarte elebitasun orekatua lortzea ezinezkoa da.

Finlandian, adibidez, suedieraz mintzatzen direnek (biztanleriaren % 5 gutxi gorabehera) euren ama-hizkuntzen erabiltzeko eskubidea dute administrazio-erikiko harremanetan, eta, 1970eko hezkuntza erreformaren ondorioz, suediera eta finlandiera, biak, irakatsi behar dira Finlandiako eskoletan. Hala eta guztiz ere, suedieraz hitz egiten den hiri eta herrietan ere finlandiera da nagusi.

Irlandako konstituzioak ere bi hizkuntza ofizial daudela esaten du: irlandera eta ingelesa. Hala ere, arrazoi ekonomiko, sozial eta politikoengatik ingelesa da irlandarrek gehien erabiltzen duten hizkuntza.

Euskal Herrian ere, gizarte elebitasun desorekatua, hizkuntza-komunitateen arteko mendekotasun harremanak edota diglosia glotofagikoa bizi ditugula esan genezake, erdarek euskarak baino funtzio edota erabilera eremu gehiago dituztelako, eta, oraindik ere, frantsesa eta gaztelera euskararen funtzio eta eremuak bereganatu nahirik dabiltzalako (bereziki Ipar Euskal Herrian).

2. Euskararen aldeko eta aurkako diskurtsoak

Hizkuntza-gatazkak sortzen duen ezinegonak egunerokotasunaren arlo askotan eragiten du, baina, batez ere, herritarren diskurtso kontrajarrietan islatzen da. Menderatzailea den hizkuntzarekin identifikatzen direnek, batetik, eta menderatutako hizkuntzen egoera ahularekin ohartuta daudenek, bestetik, modu kontrajarrian definitzen dute errealitate soziolinguistikoa, eta diagnostiko zeharo desberdinak egiten; diskurtso desberdinek hizkuntzari loturiko portaera desberdinak ere eragiten dituzte (hizkuntza erabili edo ez, seme-alabei transmititu edo ez, aldarrikatu edo ez...). Izan ere, eta Miguel Angel Cabrerak dioen bezala (Cabrera, 2001:51), diskurtsoaren bidez, gizakiok esanahia ematen diogu bizi garen testuinguruari, eta zentzua ematen berarekiko harremanari. Diskurtsoaren bidez, subjektu eta agente gisa definitzen gara, eta, ondorioz, gure jarduera soziala zehazten⁵.

Euskal Herrian XVI. mendean hasi ziren eraikitzen eta hedatzen euskararen iraganari, egoerari eta etorkizunari buruzko ikuspuntu, iritzi edota diskurtsoak. Horrela, euskara ezjakinen eta basatien hizkuntza ez-kultua zela

⁵ Xabier Erizek honela definitzen du diskurtsoa: «ideologia, uste edota mentalitatearen adierazpena» (Erize, 1997: 381). Miguel Angel Cabreraren hitzetan, diskurtsoa zera litzateke: «...rejilla conceptual de visibilidad, especificación y clasificación mediante la cual los individuos dotan de significado al contexto social y confieren sentido a su relación con él, mediante el cual conciben y conforman a sí mismos como sujetos y agentes y mediante el cual, en consecuencia, regulan su práctica social» (Cabrera, 2001:51).

adierazten zuten intelektualen aurrean, Andres de Poza, Esteban Garibai edo Manuel Larramendi bezalakoek euskararen berezko balioak goraiatu zituzten⁶. Eta, aldaketa eta formulazio desberdinekin bada ere, euskararen inguruko diskurtso kontrajarri hauek gaur egunera arte heldu dira⁷. Zehatzago esanda, euskarari buruzko bi diskurtso nagusi heldu dira gaur egunera:

- Euskararen aldeko diskurtsoa
- Euskararen aurkako diskurtsoa

Batzuen eta besteen diskurtsoen berezitasunak ulertzeko, argigarriak dira Iñaki Martínez de Lunak 2010 eta 2011. urteetan *framing*-en inguruan egin zituen gogoetak⁸. Hain zuzen ere, bere ustez, bi *framing* ezberdin eta kontra-

⁶ Manuel Larramendiri buruz hitz egiterakoan, zera zioen Jexux Arrizabalagak: «Euskara eta euskal kultura baztertuak, zokoratuak ziren, euskara marjinaturik zegoen, ezjakin eta basati batzuen dialektoko ez-kulto bat zen garaiko intelektualentzat. Madriletik, eta hau Tovarrek berak ematen du, politika zehatz bat zegoen hori horrela izan zedin. Zenbait intelektual jo eta ke ari zen lan horretan gobernua ordainduta. Madrileko gobernua zeukan proiektu politikoan euskararen suntsitzea zegoen garaiko interes ekonomikoek horrela agintzen ziotelako. Bestalde, lurralde hauetan zeuden agintariak, diputatuak, jauntxoak eta letratuak ez zuten nahi jabetu desnazionalizazio honetatik. Azken finean, hauek ere bat zetozen Madrileko gobernarekin, nahiz eta salbuespen batzuk egon, gero ikusiko dugunez. Egoera honetan zer egiten du Larramendik euskara egoera honetatik ateratzeko? Zer ezjakin eta ez-kulto adjektiboak deuseztatzeko? Apologia. Mitologia ideologia bihurtzen du (Tubal, Annio de Viterdo, e.a.). Mito berriak sortzen ditu beste hauek beren hizkuntzan egin zuten bezala. Jatortasunaren patentea euskaldunentzat eskuratu zuen. Tubalen mitoa birsortu zuen, izan ere lehendik sortua baitzegoen. Euskara zela Iberiako lehen hizkuntza eta bakarra aldarrikatzen du, hori egitean penintsulako toponimia aztertuz edo hobeto euskaldunduz. Bibliaz baliatzen da Jainkoak sortutako 72 ama-hizkuntza horietako bat euskara zela aldarrikatzeko, hain zuzen, Tubalek penintsulara ekarri zuena. Larramendik zergatik idatzi zituen lehen euskal gramatika eta lehen euskal hiztegia? Euskararen aberastasuna ezagutarazteko, horrela latina eta noski gaztelera ere bai, euskaratik zetozela, neurri handi batean behintzat, baieztatzeko» (Arrizabalaga, 1989:97).

⁷ Xabier Erizek ere, *bere Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza. Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936)* liburuan, XIX. mendearen bukaerako eta XX. mendearen hasierako Nafarroako erdaldunek euskara eta gaztelania nola ikusten zituzten adierazten digu: gaztelania kultura hizkuntza modernoa zen garaiko erdaldunentzat; kontzeptuak, kultura eta letrak adierazteko egokiena. Euskara, aldiz, hitz ahoskagaitzak dituen eta beharrezkoa ez den mendialdeko hizkuntza, zahar, bitxi eta aldrebesa zen (Erize, 1997:395).

⁸ *Framing*-ei buruzko ideiak bi artikulutan aurkeztu ditu: Martínez de Luna, I. (2010): «Framing: komunikazio-teorietatik euskararen beharizanetara». *Bat Soziolinguistika aldizkaria* 76 (53-67);

jarri daude gaur egun euskararen inguruan: Framing Aldarrikatzailea eta Framing Uzkurra.

Framing Aldarrikatzailea, aspaldi sortu zen abertzaletasunaren baitan, eta gaur arte heldu da. Ikuspuntu honen arabera, euskara bertoko hizkuntza bakarra da, eta euskal izaeraren oinarria; aldiz, gaztelania zein frantsesa hizkuntza arrotz eta inposatuak dira. Euskara gutxituta dagoenez, babesa behar du, eta hori eman ezean, galdu egingo da. Gizarte osoa euskalduntzea da ikusmolde honen helburua, nahiz eta jakin batzuek euskara gustukoa ez dutela. Ikuspegi hau jaun eta jabe da euskalgintzaren esparru ia guztietan (Martinez de Luna, 2011:592).

Framing Uzkurra (edo *framing herabea*): euskara eta euskal kultura bizi-berritzeko neurriak hartu behar direla ukatzen ez badu ere, halakoak proposatzen edota aplikatzen direnean aurka agertzen da, inposiziotzat edo diskriminaziotzat joz, eta erdaldunen eskubideen kontrakoak direla argudiatuz. Hauen artean, gehiengoa espainiarra sentitzen da, baina diskurtso hori euskaltzaleak direnengan edota sentimendu abertzalea dutenengan ere agertzen da. Oro har, euskarari buruzko kezkarik ez dago hauen artean, eta kasu batzuetan aurkako joera ezkututzen dute. Ondorioz, hizkuntza-liberalismoa defendatzen dute: nahi duenak ikasi edota erabili dezala euskara, baina erakunde publikoek ez dute inolako esku hartze edo diskriminazio positiborik egin behar (Martinez de Luna, 2011:592).

Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2015eko ekainean egin zuen *Euskara. Jarrerak eta Iritziak* ikerketak eskaintzen dituen datuak era askotara interpretatu daitezke, baina, gure ustez, atera daitekeen ondorio nagusietariko bat da euskararen inguruan bi diskurtso kontrajarri daudela: euskararen aldekoa eta aurkakoa.

Euskararen aldeko diskurtsoa baieztapen hauetan oinarritzen da:

- Euskararen sustapenean diru publikoa gastatzea ezinbestekoa da (EAEko biztanleen % 75).

eta Martinez de Luna, I. (2011): «Euskararen inguruko diskurtso berria Arabarako: gogoeta eta proposamena», *Euskera*, 56-3 (589-652).

- Etorkizunean euskaraz bakarrik (% 13) edo euskaraz orain baino gehiago egin behar da (% 55).
- Instituzioek lantokietan (% 59), osasun zentroetan (% 59), aisialdi ekitaldietan (% 55), hedabideetan (% 52) eta merkataritzan (% 55) euskararen presentzia areagotzeko orain baino lan gehiago egin behar dute.
- Zenbait lanposturako euskara jakitea eskatu beharko litzateke (% 71).
- Euskara egokia da komunikazio behar berrietarako, lan munduan, teknologia berrietan etab. (% 59)
- Euskara ikastea ez da esfortzu handiegia, trukean lortzen den onurarako (% 51).
- Euskaren aldeko neurriek ez dituzte erdaldunak diskriminatzen (% 61).
- Euskara erabiltzea ez da zama bat enpresarentzat eta merkatarientzat (% 68).
- Euskararen aldeko iritziak dituztenek euskararekiko interes handia edo oso handia dutela esaten dute (% 69).

Euskararen aurkako diskurtsoaren azpian era honetako baieztapenak daude:

- Euskararen sustapenean ez da diru publikoa gastatu behar (% 14)
- Zentzugabea da euskararen alde hainbeste ahalegin egitea (% 13).
- Instituzioek lantokietan (% 6), osasun zentroetan (% 5), aisialdi ekitaldietan (% 4), hedabideetan (% 4) eta merkataritzan (% 4) euskararen presentzia areagotzeko orain baino lan gutxiago egin behar dute.
- Gaztelania (% 12) edo ingelesa (% 14) jakitea euskara jakitea baino garrantzitsuagoa da.
- Euskara abertzaleen kontua da, ez herritar guztiona (% 11).
- Euskararen aldeko neurriek erdaldunak diskriminatzen dituzte (% 25).
- Euskara jakiteak ez du laguntzen hemengo gizartean eta kulturari integratuago egoten (% 13).

- Zenbait lanposturako ez litzateke euskara jakitea eskatu behar (% 18).
- Euskara erabiltzea zama bat da enpresarentzat eta merkatariarentzat (% 18).
- Euskara ez da egokia komunikazio behar berrietarako, lan munduan erabiltzeko, teknologia berrietarako etab. (% 22).
- Iritzi hauek dituztenek euskararekiko interes gutxi dutela adierazten dute (% 17).
- Baita esaten dute euskara ez jakiteagatik noizbait edo askotan diskriminatuak sentitu direla (% 11).

Euskararen aldeko eta aurkako baieztapen hauek babesten dituzten herritarrak kontuan hartzen baditugu, esan genezake EAEko 18 urtetik gorako biztanleriaren %51tik %75ra euskararen alde dagoela eta %12tik %25era euskararen aurka.

Azkenik, aipagarria da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza-Politika eta Kultur Sailak egin zuen V. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera ere, euskararen erabileraren sustapenaren oso alde edo alde daudela EAEko 16 urtetik gorako biztanleen %62,3 eta Euskal Herriko biztanleen %55,2. Aldiz, kontra edo oso kontra daude EAEko 16 urtetik gorako biztanleen %11,6 eta Euskal Herriko biztanleen %17,1

1. Taula: Euskararen erabileraren sustapenarekiko jarrera EAEn eta Euskal Herrian (>= 16 urte) (2011)

	EAE	Euskal Herria
Oso aldekoa	23,9	20,7
Aldekoa	38,4	34,5
Ez aldekoa ez kontrakoa	26,1	27,7
Kontrakoa	8,9	12,3
Oso kontrakoa	2,7	4,8
Guztira	100	100

Iturria: norberak egina, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza-Politika eta Kultur Sailak egindako V. Inkesta Soziolinguistikoko datuak erabilita

Honela bada, esan genezake, oinarrian, bi talde, kultura kolektibo edo diskurtso daudela euskararekiko harremanei dagokionez:

- Euskararen alde daudenenak edo euskararen lagunak
- Euskararen aurka daudenenak edo euskararen aurkariak

Argi esan nahi dugu bi talde, kultura kolektibo edo diskurtso hauek zentzu weberiarreko tipo ideal dialektikoak direla; alegia, eraikuntza artifizialak direla, hizkuntza-gatazkaren izaera edota gure errealitate soziolinguistikoa hobeto ezagutzen laguntzen dutenak⁹.

Beraz, onartzen dugu bi talde hauek ez direla monolitikoak, eta euren baitan ikuspuntu, iritzi eta ñabardura desberdinak daudela, baina bi tipo ideal hauek gaiaren inguruan hizkuntza komun bat sortzeko balio diezagukete; errealitatearekin alderatuz, ondorioak ateratzen lagundu dezakete; eta, azkenik, erabilgarriak izan daitezke hipotesiak egiteko¹⁰.

Euskararen lagunen artean, adibidez, batzuk diote etorkizunean euskaraz bakarrik egin nahi dutela (% 13); beste batzuk, aldiz, bietan egin nahi dutela, baina euskaraz orain baino gehiago (% 55).

Euskararen aldekoen talde honetan, bestalde, euskararen egoerari eta etorkizunari buruzko diagnostiko desberdinak aurkitzen ditugu. Batzuen zat, euskara nekez normalizatuko da, euskararen estatus juridikoa zein hizkuntza-politika ez delako heltzen nahikotasun mailara, ezta EAEn ere. Eus-

⁹ Weberrek zioen bezala: «Un tipo ideal...se obtiene...mediante el realce unilateral de uno o varios puntos de vista y la reunión de una multitud de fenómenos singulares, difusos y discretos, que se presentan en mayor medida en unas partes que en otras o que aparecen de manera esporádica, fenómenos que encajan en aquellos puntos de vista, escogidos unilateralmente, en un cuadro conceptual en sí unitario. Este, en su pureza conceptual, es inhallable empíricamente en la realidad: es una utopía que plantea a la labor historiográfica la tarea de comprobar en qué medida la realidad se acerca o se aleja de ese cuadro ideal...» (Weber, 1982:79-80).

¹⁰ Fernando Sanchez de Puertak dioen bezala: «...un tipo ideal o un conjunto de ellos sirven, en primer lugar, para llegar a un lenguaje común a la hora de hablar o escribir sobre un concepto sociológico. En segundo lugar, los tipos ideales nos permiten compararlos con realidades empíricas para obtener conclusiones. Por último, los tipos ideales son útiles para la formulación de hipótesis» (Sanchez de Puerta, 2006:15).

kararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak bere *Ildoen Azterketa eta Zehaztapena 2011-2016* txostenean zioen legez (2011:1): «Euskal Herriko lurralde desberdinetan egoera desberdinak ditugula aintzat hartuta ere, esan dezakegu, lurralde bakar batean ere ez dugula euskararen normalizazioari begira nahikotasun mailara iristen den ez hizkuntza-politika ez eta status juridikorik». Beste batzuentzat, aldiz, euskara pauso sendoz indarberritzen ari da, behintzat EAEn, eta euskarak badu etorkizuna. Miren Azkaratek IV. mapa soziolinguistikoaren sarreran zioen bezala (Eusko Jaurlaritz, 2009:7): «Euskara, beraz, bizi da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan¹¹ bederen, sekula ez bezala, pauso sendoz ari da indarberritzen. Izan ere, hogei-ta bost urtetan, hots, lehenbiziko emaitzak argitara eman zirenetik hona, 300.000 hiztun irabazi ditu euskarak EAEn. Laurogeiko hamarkadaren hasieran ez bezala, adin talderik gazteenak dira euskaldunenak, gainera. Iragan luzea daukan gure hizkuntzak badu, beraz, etorkizunik».

Azkenik, euskararen alde daudela diotenen artean ikuspuntu, iritzi eta ñabardura desberdinak daudela ohartzeko, ezin dugu ahaztu, euskararen aldeko adierazpenek oinarri ahula izaten dutela, sarri askotan. Alegia, jende askok euskara suspertzearen alde dagoela aipatzen du inkestetan (arestian ikusi bezala, euskal herritarren % 55,2 euskararen erabilera suspertzearen alde edo oso alde dagoela esaten du), baina aldekotasan hori aurkakotasun bihurtzen da euskararen aldeko neurri zehatzak aipatzen direnean (Amorrortu, Ortega, Idiazabal eta Barreña, 2009).

Euskararen aurkariak ere ez dira pentsamolde bakarrekoak. Hauen artean ere, ñabardurak, muturreko iritziak eta iritzi desberdinak daude. Haue-tariko batzuk diote etorkizunean euskarak orain duen presentzia bera izan beharko lukeela (% 23); beste batzuentzat, aldiz, etorkizunean orain baino euskara gutxiago (% 1) edo gaztelania bakarrik (% 1) egin beharko litzate-keela. Egia esan, euskararekiko jarrera ezkorrena dutenei ez litzaieke ardu-ratuko euskara galduko balitz (% 4).

EGOD (Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen lanketa) egitas-moak ere argi erakutsi du euskararen aldeko eta aurkako diskurtsoen azpian

¹¹ Hemendik Aurrera EAE.

ñabardura asko daudela (Martinez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate, 2015). Hain zuzen ere, azterketa honen arabera, bost dira euskararen inguruko diskurtsoak (<http://www.euskara.euskadi.eus>):

1. Errespetuaren diskurtsoa dutenek (%97) diote erdarak eta euskarak maila berean egon behar dutela, eta iruditzen zaie, hizkuntzen arteko polarizazioa 1982ko kontsentsuaren bidetik gaintitu daitekeela.
2. Diskurtso pragmatikoaren aldekoek (%85) uste dute euskarak aukera gehiago, prestigioa, lanerako abantailak edota integratzeko erraztasunak ematen dituela. Bereziki, hizkuntzak unibertsitatean edota teknologia berrietan duen presentzia eta prestigioa estimatzen dituzte.
3. Diskurtso sustatzailea dutenek (%82) zera pentsatzen dute: euskaldunok euskara erabiltzeko aukera izan behar dugula, euskara guztion ardura dela eta euskara aurrera ateratzeko guztion arteko akordioa beharrezkoa dela. Talde honetan kokatzen direnek uste dute euskara sustatzea ez dela diskriminatzea, eta esaten dute euskarak hizkuntza nagusia izan behar duela, inposaketarik gabe.
4. Diskurtso aldarrikatzailearen aldekoek (%61) uste dute zenbait lanpostutan euskara eskatu behar dela; baita eskolak euskara ikastea bermatu behar duela, ezinbestekoa dela euskararen sustapenean diru publikoa gastatzea; euskarak orain duen baino presentzia handiagoa izan behar duela; euskararen presentzia ziurtatzeko lan gehiago egin behar dela hedabideetan, merkataritzan, osasungintzan, lantokietan eta aisialdian; eta, arnaguneak diren eremuetan ez zaiola trabarik jarri behar euskararen babesari.
5. Azkenik, mesfidatien diskurtsoa dago (%14). Hauen ustez, euskara ikastea esfortzu handiegia da ekartzen duen onurarako. Horrez gain, euskararen aldeko neurriek erdaldunak diskriminatzen dituztela pentsatzen dute; baita esaten dute hobe dela ingelesa ikastea; euskara desegokia dela gaurko mundurako, abertzaleen kontua dela eta desagertuko balitz ere ez litzatekeela galduko.

Argi dago euskararen inguruko bi diskurtsoen azpian azpidiskurtsoak daudela. Are gehiago, iruditzen zaigu euskararen aldekoen eta aurkakoek diskur-

tsoen azpian dauden ñabardurak kontuan hartzeak lagundu dezakeela erdal-dunak euskarara erakartzeko estrategia diskurtsiboak sortzeko. Edozelan ere, Euskal Herrian bizi dugun elebitasun desorekatua, hizkuntza-komunitateen arteko mendekotasun harremanak edota diglosia glotofagikoa ulertzeko eta azaltzeko, metodologikoki baliagarriagoa da euskararen aldekoen eta aurkakoen artean bereiztea. Alegia, EGOD egitasmoaren emaitzen erabilgarritasuna onartuta ere, iruditzen zaigu euskararen aldekoen eta aurkakoen artean bereiziz hobeto azaltzen dela Euskal Herrian oraindik ere bizi dugun hizkuntza-gatazka. Izan ere, euskararekiko definitzen garenean edota euskararekiko gure jarduera soziala zehazten dugunean, ñabardura guztien gainetik, bi diskurto nagusi azaleratzen dira: aldeko diskurtoa eta aurkakoa. Gainera, Lindbekk-ek esan bezala, ikerketarako tipo ideal argiak lortzeko biderik egokiena da aurka dauden kontzeptuak definitzea (Lindbekk, 1992:290).

3. Hizkuntza-gatazka Euskal Herrian

Hizkuntzen inguruko diskurtoak modu indibidualean ahoratzen dira, baina kolektiboki eraikitzen. Are gehiago, ia beti, kolektiboki eraikitzen diren diskurto horien euskarri eta bultzatzaile garrantzitsuenak ideologiak edota helburu politikoak izaten dira¹². Horrela, ideologia edo helburu politiko bakoitzak bere estrategiei loturiko diskurtoak erabiltzen ditu iritzi publikoa eragiteko eta, ostean, baita hizkuntza-politikan ere (Zarraga, 2010:76).

Euskal Herrian, euskararen aldekoen eta aurkakoen artean dagoen gatazka linguistiko-politiko agertzen duten adibide ugari aurki ditzakegu¹³. Azken urteotako gertakari batzuk aipatuko ditugu:

¹² Iñaki Martínez de Lunak gogoratzen zigun bezala (2010:56): «Canel eta Sanders-ek (2005) azaldu duten bezala, hizkera politikoaren bitartez egiten den gertaeren edo egoeraren interpretazioa (*framinga*) errealitatea sortzeko hiru moduotan erabil daiteke: iraganaren zein etorkizunaren ulermena eraikitzeko, agenda finkatzeko eta jendea jarduerara bultzatzeko».

¹³ Joan Mari Torrealdaireren *El Libro Negro del Euskera* (1998) liburuak argi utzi zuen euskararen aurkako politika aspaldian hasi zela eta sistema politikoaren eta agintean zeuden alderdi politikoaren gainetik gaur eguneraino heldu dela.

- 2013an, Frantziako Estatu ordezkari Patrick Dallennesek (Baionako suprefetak) debekatu egin zion Hendaiaiko Udalari herri horretako ikastola laguntzea, 1850eko Falloux legean oinarrituta.
- 2014an, Dallennesek berak, Uztaritzeko Herriko Etxea epaitegietara eraman zuen, udalean euskara hizkuntza ofizial izendatzeagatik.
- 2014 eta 2015. urteetan, EAEn Estatu ordezkaria den Carlos Urquijok 24 udal salatu zituen, Gobernu Zibilera aktak euskara hutsez bidaltzeagatik.
- 2014. urtean, Carlos Urquijo berak Gipuzkoako hainbat udal eta baita Gipuzkoako Foru Aldundia ere salatu zituen, kontratazioetan hizkuntza irizpideak sartzeagatik.
- 2013. urtean, Carlos Urquijok Gipuzkoako Aldundiaren aurka jo zuen, Seaskari diru laguntza emateagatik.
- 2015eko urtarrilean, UPN-ren gobernuak, Nafarroako Gobernuak Baztango Udalaren euskara plana salatu zuen, hizkuntz irizpideak jartzea legez kanpokoak zela iritzita.
- Gobernu horrek, bestalde, udaletako hainbat Euskara Zerbitzu diru-laguntzarik gabe utzi zituen 2013tik 2015era, deialdia burutu ez zuelako.
- Gauza bera egin zuen helduen euskalduntze eta alfabetatze lana egiten duten IKA eta AEK-rekin. Bi elkarte hauek salatu zuten, 2012ko urritik ez dute euro bakar bat jaso Nafarroako Gobernutik, nahiz eta 2013ko aurrekontuetan gobernuak 245.000 euroko diru-saila zuen onartua.

Patrick Dallennesek, Nafarroako Gobernuak eta Carlos Urquijok bultzatu zituzten salaketa hauen guztien aurka, 2015eko otsailean, euskararen aldeko diskurtsoa duten pertsonak, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak deituta, manifestaldian elkartu ziren, euskararen kontrako eraso hauek guztiak salatzeke.

Debeku, salaketa eta manifestazio hauek eta hemen aipatu ez ditugun beste batzuk erakusten dute euskararekiko harremana modu desberdinean bizi dela Euskal Herrian. Elkarren kontra ari diren eta euskarri politi-

ko-ideologikoa duten ikuspuntu, pentsamolde edota diskurtsoak daude hizkuntzekiko harremanetan. Eta, gure ustez, aurkakotasun hau oztopo izugarria da hizkuntza-politika eraginkor bat aurrera eramateko¹⁴, eta baita hizkuntza-bizikidetzarako, eta, oro har, gizarte bizitzarako.

Zein da aurkakotasun politiko-linguistiko hau ikertzeko eredu teoriko egokiena? Zein paradigma teoriko erabili behar dugu debekuz, istiluz, salaketez eta manifestazioz beterik dagoen errealitate soziolinguistiko hau ulertzeko?

4. Errealitatea ikertzeko, gatazkaren teorian oinarritu beharra

Hainbat autorek diote gizarte batean hitz egiten diren hizkuntza guztiak sistema ekologiko bakarra osatzen dutela, eta hizkuntza bakoitzak bere tokia (txoko ekologikoa) duela hizkuntza-ekosisteman, bere funtzioek eta ingurunearekiko harremanek zehazten dutena (Coyos, 2010:181). Hau da, kontsentsuan oinarritzen den ikuspuntu teorikoen eta, zehazki, hizkuntza ekologiaren teoriaren arabera, gizarte bateko hizkuntzak guztiak berdinak dira, hauen artean nolabaiteko antolaketa dago, eta guztiak elkar osatzen dute. Ikuspuntu honen oinarrian teoria funtzionalistek babesten duten ideia bat dago: desharmonia eta gatazka disfuntzionalak direla gizartean.

Kontua da gizarte bateko hizkuntza-komunitateen artean oreka eta harmonia oso gutxitan lortzen direla; ia gehienetan, hauen arteko harremanak gatazkatsuak eta desorekatuak izaten direlako, batzuek eta besteek interes desberdinak izaten dituztelako (Dahrendorf, 1971:188-198).

¹⁴ Iñaki Martínez de Lunak dioen bezala: «Bistan da bi *framing* kontrajarri horiek, biak ala biak, gizarte berean eta aldi berean egotea ez dela baldintzarik egokiena hizkuntza-politika eraginkor bat aurrera eraman ahal izateko, ezin baita eragileen arteko eztabaidaren gainean, ezta jendearen zalantzen edo ukazioaren gainean ere, ezer iraunkorrik eta sendorik eraiki. Izan ere, edozein hizkuntzak duen bermerik handiena txertatuta dagoen komunitatearen babesa eta atxikimendua da, eta euskarak euskal gizarte osoaren laguntza behar du, ez soilik sektore euskaldunena» (Martínez de Luna, 2010:58).

Gainera, Xabier Erizek dioen bezala, hizkuntza-ekologiak beste ahultasun hauek ere baditu:

(1) balioen mailako kontzeptu moral bat izanik, berez ez da aski ikerkuntzan edo hizkuntza kudeaketan gehiago garatzeko, eta beste diziplina batzuen laguntza behar du; (2) balio horietan sinesten dutenak oso inplikaturik gelditzen diren bezala, garrantzi gutxi ematen dietenak kanpo gelditu daitezke; eta (3) biologiaren eta gizarte zientzien arteko paralelismoa irristakorra suertatzen da. (Erize, 2011:67)

Onartu beharra dago hizkuntza-komunitateen arteko harmonia, oreka edota harreman egokien aldeko diskurtsoa oso ondo dagoela estrategia komunikatibo erakargarriak sortu nahi badira, baina, gure ustez, hizkuntza-komunitateen arteko harremanetan benetan gertatzen dena ezagutu nahi bada, baliagarriagoak dira gatazkaren teoriak. Beste berba batzuekin esanda, bi hizkuntza edo gehiago ukipenean daudenean, hauen arteko desoreka, gatazka edota lehia sortzen da, hizkuntzek indar edota egoera desberdina izaten dutelako betetzen dituzten funtzioen edota erabilera-eremuen ikuspuntutik.

Hizkuntza-gatazkaren ereduak hizkuntzen eta hizkuntza komunitateen arteko harremanen alde bortitzena erakusten du, harmonia eta oreka perfektua lortzea ezinezkoa dela azpimarratzen du eta erabiltzen dituen kontzeptuek (lehia, gatazka, desoreka...) diskurtso desatsegina sortzen, baina, gure ustez, ukipenean dauden hizkuntzen harremanak hobeto ulertzen laguntzen digu. Alegia, hizkuntza-gatazkaren ereduak hizkuntzen artean sortzen diren desorekak ezagutzen laguntzen digu, baita hizkuntza-gatazka guztiz indargabetzea eta gizarte elebitasun orekatua eta egonkorra lortzea ezinezkoa dela ulertzen ere. Besteak beste, hobeto kontuan hartzen dituelako interes politiko, ekonomiko, militar edota sozialek hizkuntza-komunitateen arteko harremanetan duten eragina.

5. Gatazka gainditzeko partekatutako balio etikoen beharra

Hizkuntza-gatazkaren eredu teorikoan oinarritzeak ez du esan nahi lehia horretan, nahitaez, hizkuntza batek garaile atera behar duenik eta besteak

desagertuko direnik. Alegia, gatazka saihetsezina dela onartuta ere (gizarte orekatuenetan ere gatazka maila bat beti izango da), iruditzen zaigu posible dela elkarrekin bizi diren hizkuntza-komunitateen arteko bizikidetzatza hobea-gotzea.

Horretarako, ezinbestekoa da arau argiak izatea. Hau da, Dahrendorf-ek bezala, guk ere pentsatzen dugu gatazka duten komunitateen arteko lehia txikiagotu egin daitekeela gatazka arautzen bada; edo, beste berba batzuekin esanda, gatazkan dauden hizkuntza-komunitateak elkarrengandik aldentzen diena onartzen badute, eta elkarrekiko harremanetan arau komun batzuk onartzen eta errespetatzen badituzte (Dahrendorf, 1971:188-198).

Baina arau horiek barneratuak eta errespetatuak izateko, ezinbestekoa da balio etikoetan oinarritutako diskurtso eta hizkuntza politiken alde egitea. Alegia, kontrabalioetan (intolerantzia, etnozentrismoa, mendekotasuna, aurreiritziak, desberdintasuna...) eta aurkako interesetan oinarritutako portaerei, jarrerei eta diskurtsoei (lubakietako diskurtsoei) indarra kentzeko eta hizkuntza-komunitateen arteko bizikidetzatza hobea-gotzeko, bide emankorra izan daiteke balio etikoen aldeko hautua egitea (Garmendia, 2003:50).

Izan ere, balio etikoek gizarteko beste kideekin harreman egokiak edukitzeko jarraitu edota onartu behar diren printzipio, ideia, irizpide eta arauak ematen dizkigute, sentitzeko, izateko, pentsatzeko edo jarduteko era komunetan islatzen direnak. Balio etikoek ondo dagoena eta txarto dagoena kontzientzian barneratzen laguntzeaz gain, bizitzako gertakariak eta esperientziak interpretatzeko edota hauei esanahiak emateko irizpideak ematen dizkigute. Are gehiago, gizarte baten etorkizun historikoa bermatzeko ezinbestekoa da bera osatzen duten biztanleek -adostuta ez bada ere- partekatutako balio etikoak izatea. Izan ere, balioak partekatzen ez dituzten gizarteek arazoak izaten dituzte gizarte bizitzarako.

Zeintzuk izan daitezke gure arteko elkarbizitza linguistikoari dimentsio etiko-morala eman diezaioketen balioak? Zeintzuk izan daitezke indartu, hedatu edota partekatu beharko genituzkeen balio etikoak?

6. Egia, askatasuna, errespetua-tolerantzia eta justizia hizkuntza-bizikidetzaren hobeagotzeko

Gure ustez, lau balio etiko jorratu eta hedatu beharko lirateke elkarbizitza linguistikoari dimentsio etiko-morala emateko: egia, askatasuna, errespetua-tolerantzia eta justizia. Izan ere, hainbat autorek esan duten bezala, lau balio horiek unibertsalak, absolutuak eta aldaezinak dira, eta gizakiaren eta elkartearen duintasuna ziurtatzen duten elkarbizitza ahalbidetzen dute (Setien, 2004:14-15). Balio hauek etikoak dira, hain zuzen ere, ona eta txarra zer den gure kontzientzian barneratzen digutelako, eta, ondorioz, elkarbizitza linguistikoa eta, oro har, gizarte elkarbizitza hobeagotzen lagundu dezaketelako: «Nosotros hablamos aquí de ‘valores éticos’, es decir, de valores que son capaces de imponerse a la libertad de las conciencias, desde la perspectiva de lo ‘bueno’ y lo ‘malo’, según el imperativo kantiano tan conocido de ‘haz el bien y evita el mal’. En el orden político-social en el que nos movemos, hacer el bien significa motivar las actuaciones desde las exigencias de estos valores...» (Setién, 2004:15).

Hasieratik esan nahi dugu¹⁵ ez dugula nahi balio etikoei buruz modu abstraktuan hitz egitea, baizik eta nire helburua da azaltzea balio etiko horiek nola aplikatu edota erabili ditzakegun elkarbizitza linguistikoa hobeagotzeko.

Egia

Izan denarekin, gaur egun denarekin edo izango denarekin bat datorren adierazpena da egia.

Egia jakitea ezinbestekoa da gure artean ondo konpontzeko. Izan ere, egirik gabe aurreiritziak hedatzen dira, eta horrek etnozentrismoa, konplexuak, aurkakotasunak eta mendekotasuneko harremanak sortzen ditu.

¹⁵ Josep-Maria Terricabras-ek zioen bezala: «Baloreetaz ere abstraktuan mintzatzen da. Hain gara aparteko platonikoak, non iruditzen zaigun askatasuna, justizia edota ongia eta gaizkia beren kabuz existitzen direla, inork edo ezerk irudikatze beharrik gabe» (Terricabras, 2001: <http://www.soziolinguistika.eus>).

Hizkuntza-gatazkaren oinarrian gure hizkuntza errealitateari buruzko hitz, diskurtso, definizio eta kontzeptu kontrajarriak daude: batzuentzat hizkuntza-normalizazioa dena, beste batzuentzat diskriminazioa eta inposizioa da. Batzuk soilik hizkuntza-eskubide indibidualak aipatzen dituzte eta beste batzuk eskubide kolektiboak. Aniztasun linguistikoa aberastasuna da batzuentzat eta arazoa beste batzuentzat. Batzuk diote euskararen sustapenean diru publiko gehiegi gastatzen dela eta beste batzuk gutxiegi. Euskara abertzaleen kontua dela diote batzuk, beste batzuk guztiona dela. Batzuen arabera, euskara ez da egokia komunikazio behar berrietarako (lan munduan, teknologia berrietan...), beste batzuentzat, aldiz, euskarak funtzio eta eremu guztietarako balio du.

Nola lortu hizkuntza-bizikidetzaren hizkuntzek bizi duten errealitateari buruzko definizio desberdinak baditugu edota bakoitzak bere egiak eta aurreiritziak babesten baditu?

Askatasuna

Gizakiek aske izan behar dute nahi duten hizkuntzarekin identifikatzeko eta, beraz, baita hautatu duten hizkuntza erabiltzeko eta seme-alabei transmititzeko ere. Hizkuntzen bizikidetzaren eraikitze ezinbestekoa da gizabanakoen borondateak errespetatzea.

Edozelan ere, kontuan hartu behar dugu «hizkuntz hautaketaren askatasuna bakarrik ematen dela, egiazki, beste guztiek ulertu ahal didaten baldintzetan, hizkuntza bat edo bestea erabiltzen dudala ere (taldearekiko adostasuneko edo ez-adostasuneko hizkuntza)» (Terricabras, 2001: <http://www.soziolinguistika.eus>). Alegia, nahi dudana hizkuntza erabiltzeko askea izango naiz ingurukoek nik egin nahi dudana hizkuntza hori ezagutzen dutenean. Eta horrek ondorio honetara eramaten gaitu: «...gizabanakoaren hizkuntz askatasuna beti da bizitzen ari diren askatasun kultural, sozial eta politikoaren baldintzen zantzua» (Terricabras, 2001: <http://www.soziolinguistika.eus>).

Zer egin euskaraz bizitzea erabaki duen udalerrri bateko herritar batek informazioa erdaraz jasotzeko eskubidea ukatzen zaiola adierazten badu? Nola

sortu hiztun libreak testuinguru soziolinguistiko orokorrak euskara erabiltzeko askatasuna mugatzen badu? Nola lortu hizkuntza-bizikidetzak, batzuk euskaraz bizitzeko aukerarik ez dutela esaten badute eta beste batzuk euskararen aldeko politikek baztertu egiten dituztela sentitzen badute? Nola uztartu gizabanakoen eskubide linguistikoak eta hizkuntza-komunitateenak?

Errespetua-tolerantzia

Gizarte batean ukipenean dauden hizkuntza guztiek balio bera dute eta errespetatu, onartu eta aitortu egin behar dira. Izan ere, hizkuntzek ezagutza sortzea eta, ondorioz, bizi-kalitatea hobegotzea ahalbidetzen digute. Hizkuntzak nahitaezko bitartekoak dira kultur adierazpenerako eta ondare kulturala ikusezina transmititzeko, eta beharrezkoak dira gizakien eta gizarte-taldeen identitaterako zein aurrerabiderako.

Elkarrenganako errespeturik, elkar ezagutzarik edota elkar aitortzarik gabeko hizkuntza harremanak eraikitzen badira, hizkuntza gatazka gaindiezina bihurtzen da.

Nola lortu hizkuntza-bizikidetzak euskararen eta erdararen aldekoek elkarrenganako ezagutza, elkar aitortza edota harreman gutxi badute?

Justizia

Euskal esaera batek dioen bezala, «bakoitzari berea da zuzenbidea». Justizia egitea ez da desberdina dena berdin tratatzea, baizik eta ahula edo beharrezkoa duenari laguntzea. Ahula eta indartsua, biak, berdin tratatzea baztertzailerik da; alegia, oreka eta berdintasunera hurbilduko gara ahulari laguntzen bazaio. Zentzu honetan, hizkuntza-gatazka gainditzeko ezinbestekoa da justizia kommutatiboaren kontzeptua barneratzea; alegia, hizkuntza bakoitzari bere egoeraren arabera lagundu behar zaio, eta ez dituen berezitasunen arabera.

Nola normalizatu euskararen egoera, batzuen ustez euskararen aldeko politikak egitea injustizia sortzea dela badiote?

7. Egia, askatasuna, errespetua-tolerantzia eta justizian oinarritutako diskurtso berria

Hizkuntza-bizikidetzeta eta, beraz, gizarte bizikidetzeta hobeagotzeko euskararen aldeko eta aurkako diskurtsoak gaindituko dituen diskurtso berri eta partekatua behar dugu.

Gure ustez, diskurtso berri horrek egia, askatasuna, errespetua-tolerantzia eta justiziaren balio etikoetan oinarritu behar du. Izan ere, lau balio horiek norbere taldearentzako zein besteentzako modu zintzo eta kritikoan onena bilatzera bultzatzen gaituzte (Ayerbe eta Garmendia, 2003:6).

Lau balio hauekiko koherentziaz, diskurtso berri horrek zera azpimarratu beharko luke:

Egia

Egiaren izenean, onartu beharko dugu:

- Orain bezala, etorkizunean ere Euskal Herria eleaniztuna izango dela eta eleaniztasuna aberasgarria dela¹⁶.
- Eleaniztasunaren izenean, onartu beharko dugu merezi duela euskararen sustapenean diru publikoa gastatzea. Izan ere, euskara eta er-

¹⁶ Eleaniztasuna onartzea ez da ikusi behar euskararen aldeko normalizazio politiken porrot gisa. Eleaniztasuna aberasgarria da. Fishmanek zioen bezala (2001: 17): «A continuing ethnohumanistic, ethnoreligious and ethnocultural constellation of beliefs, behaviours and attitudes. Only such a constellation will ultimately provide a rationale going beyond the economies of scale inherent in the materialist view of those who have essentially concluded that ‘if you can’t beat them, join them’. It is only the conviction that one’s own language-in-culture is crucially different and, therefore, worth sacrificing for («vive la difference!») that makes RLS worthwhile, though in the great majority of cases it means embarking on a carefully multilingual and multicultural existence for the foreseeable future. Although this may be considered a defeat by some RLSers, there is also good reason to consider it an honourable, enriching and constructive solution to the multiple ethnocultural identities which most modern human societies and individuals are increasingly destined to enact as an inevitable consequence of the complexity of ongoing globalisation.»

darak ez daude egoera berean, eta hizkuntza politikarik gabe euskara desagertzeko arriskuan egon daiteke.

- Euskara Euskal Herrian bakarrik hitz egiten dela, eta, aldiz, gaztelania eta frantsesak garatzeko eta bizitzeko eremu zabala dutela hemen zein kanpoan.
- Euskararen aldeko neurrien helburua ez dela erdaldunak diskriminatzea, baizik eta euskara indartzea.
- Euskara ikastea ez dela zaila.
- Euskara jakitea ez dela bateraezina gaztelania, frantsesa edo ingelesa jakitearekin.
- Aukera berdintasunaren izenean, zenbait lanpostutarako euskara jakitea ezinbestekoa dela.
- Euskara erabiltzea ez dela zama bat enpresarentzat eta merkatariarentzat, aukera bat baizik.
- Euskara egokia dela komunikazio behar berrietarako (lan munduan, teknologia berrietan...).
- Euskaraz bizi nahi duten herritarrek arazoak dituztela funtzio eta eremu guztietan euskaraz aritzeko, testuinguruak ez duelako hori ahalbidetzen.
- Euskara ez dela soilik abertzaleen kontua, guztiona baizik¹⁷.
- Euskara ikastea ez dela ahalegin handiegia, trukean lortze den onura kontuan hartzen bada.

¹⁷ Hori bai, ezin da ahantzi abertzaletasunak eta, oro har, euskal identitatearen inguruko eztabaida, borroka, gogoeta eta kontzientzia hartzeek berebiziko garrantzia izan dutela (motorra izan direla) euskararen berreskuratze prozesuan. Are gehiago, gure ustez, euskara eta bozka abertzaletasunaren artean proportzionaltasun-harreman positiboa dagoela jakinda (ikusi harreman honi buruz Harkaitz Garmendiak egindako ikerketa, 2015), euskararen eta euskalduntasunaren gaia eztabaida ideologiko-politikotik aterata, euskararen aldeko borroka umezurtz eta indarrik gabe gelditze-ko arriskua dago. Odriozolak dioen bezala (Odriozola, 2015:71): «Euskal Estatuaren formulazioan abertzaletasunaren aldaera guztiak dabilta oker euskara borrokaren erdigunetik periferiara baz-

Egiaren izenean, ezinbestekoa da hizkuntzen inguruan dauden gezurren, esamesen eta aurreiritzien aurka egitea¹⁸, eta horretarako, arlo honetan erabiltzen diren kontzeptuen esanahiak bateratu edota adostu behar dira (inposizioa, normalizazioa, bazterkeria ...), hizkuntzen egoerari buruzko datuak gehiago zabaldu (baita datu ekonomikoak ere), eta erakunde zein gizarte eragileek hizkuntzek bizi duten errealitateari buruz orain egiten dutena baino pedagogia gehiago egin behar dute.

Askatasuna

Askatasunaren izenean zera onartu beharko dugu:

- Gizabanakoek aukeratu duten hizkuntzan bizitzeko eskubidea dutela.
- Zenbait pertsonak erdaren aldeko hautua egingo dutela harreman informaletan eta beste batzuk euskararen aldekoa.
- Zenbait esparru eta funtziotan euskara izango dela hizkuntzarik erabiliena, eta beste funtzio eta esparru batzuetan euskarari asko kostatuko zaiola gaztelaniak duen hedakuntza lortzea.
- Elebitasun sozial orekatua lortzea oso zaila dela, eta elebitasun desorekatuan bizitzen ikasi beharko dugula.
- Ondorioz, maila txikiagoko edo handiagoko hizkuntza-gatazkekin edota hizkuntzen inguruko eztabaida ideologiko-politikoekin bizitzen

tertuta». Edozelan ere, beste batzuentzat, euskararen eta abertzaletasunaren artean dagoen identifikazioa kaltegarria izan daiteke euskararentzat. Harkaitz Garmendiak dioen bezala: «Nazionalismoa, helburu politikoak erdiesteko lanabesa izanik, estrategia eraginkorrenak marrazten saiatzen da. Alde horretatik, euskal paradigma politikoa errotik aldatu den honetan, euskara eta abertzaletasunaren artean dagoen identifikazioa estrategikoki komenigarria den hausnartzea komeni da» (Garmendia, 2015:39).

¹⁸ Iñaki Martínez de Lunaren hitzak erabiliz: «...euskararen mamuak uxatzea...» (Martínez de Luna, 2001:645).

jarraitu beharko dugula; hau da, epe luzean euskararen aldekoen eta aurkakoen arteko interesen arteko gatazkarekin¹⁹.

Gizabanakook aukeratu dugun hizkuntzan bizitzeko eskubidea dugula onartuta ere (norbanakoen eskubideak onartuta ere), ezin dira eskubide kolektiboak ahanzi. Zentzu honetan, onartu beharra dago hizkuntza-komunitateek aske izan behar dutela euren hizkuntzaren biziraupenaren alde lan egiteko eta hizkuntza horren garapen osoa ziurtatzeko²⁰. Beraz, norbanakoen askatasun eskubideak ezin du baldintzatu, adibidez, umeen euskara ikasteko eta eskolaren bitartez euskara ezagutzeko beharra. Norbanakoen askatasun eskubideen gaineratik, botere publikoek, hezkuntza-sistemaren bitartez, bi hizkuntza ofizialen ezagutza eraginkorra bermatu behar dute²¹. Modu berean, eskubide kolektiboen izenean, onartu beharko da udal administrazio batzuk euskaraz aritzeko hautua egingo dutela. Eta horrek zera onartzera eramaten gaitu: hizkuntzen inguruan sortzen diren arau, irizpide, eskakizun edota praktika linguistikoak egoera soziolinguistikoaren arabera egokitu behar direla, hau da, zonalde batean bizi diren euskaldun eta erdaldunen kopuruak arabera²². Hizkuntza politika bera ere, egoera soziolinguis-

¹⁹ Batzuen ustez, inoiz ere ez da gaindituko gatazka hau, euskaldungoa ulertzeko gogo gutxi dagoelako. Joxe Azurmendi zioen bezala: «Uste dut kulturako euskaldun denok eduki dugula noizbait alderdi guztien arteko konpresio guztizko ederraren tentazio, edo ilusio ekumenista, erromantikoa hau: euskaltzetasun zabal eta bakun bat, unibertsalista, irekia, errebindikazio humano-humano eta kultural politekin, ideal humanista arrunt batzuk besterik ez funtsean, inolako agresibitate gabe, nahiko elementala eta kasi apolitikoa (edozein politikarekin adostu ahal izatekoa), 'etsaien' artean ere aise ulertu ahal izango digutena, borondate on eta kultura pixka bateko nornahik problemarik gabe onartu ahal izango ligukeen modukoa... Gero denok ikasi beharra edukitzen dugun arte, kultura espainolean ez dagoela euskal abertzaletasun erradikal eta moderaturik, ez liberal eta fanatikorik, ulertezin eta ulergarririk, razional eta zororik, eta azkenean alfer-alferra ezeze, ridikuloa dela hor aterik ate pelegriño ibiltzea 'ulerpen' eskale. Edo axola gehiegiren bategatik, edo axolarik deusezgatik, inoiz ez dute lekuri beren munduan gure ulerpenerako» (Azurmendi, 1997:129-130).

²⁰ Ikusi Lander Etxebarriaren «Euskaldunon Hizkuntza Eskubideak» artikulua. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 45. zenbakia, 2002ko abendua.

²¹ Gai hau jorrazteko oso egokia da 2005. urtean Iñigo Urrutia Libarona argitaratu zuen liburua: *Derechos Lingüísticos y Euskera en el Sistema Educativo*.

²² Ikusi 1990. Urteko J. Laponceren «Irtenbide pertsonalak eta lurralde-irtenbideak estatu eleantunaren arazoan aurrean», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 23-47 eta Paula Casaresen (2004):

tikoaren arabera egokitu beharko litzateke. Josu Labaka UEMA-ko lehendakariak zioen bezala: «...euskararen normalizazioan liderrak izatea dagokigu udalerrri euskaldunoi eta euskararen arnagune garen guztioi... Lidergoak, ezinbestean, hizkuntza politika berezitua behar du, batetik arnaguneak zaindu eta zabaldu ahal izateko, eta bestetik gune erdaldunagoak euskarara erakartzeko (UEMA, 2016:2).

Errespetua-tolerantzia

Errespetuaren izenean onartu beharko da:

- Hiztunak edota hizkuntza-komunitateak diskriminatzen dituzten jorkabide guztiak alboratu behar direla.
- Hizkuntza eskubide indibidualekin batera eskubide kolektiboak ere badaudela, eta norbanakoaren hizkuntza-eskubideak ezin direla bermatu hizkuntza-eskubide kolektiboak errespetatzen ez badira²³.
- Nola errespetatu zonalde euskaldunean bizi den erdaldunaren hizkuntza-eskubideak? Nola errespetatu euskara hutsez bizitzea erabaki duen udalerrri baten eskubidea? Arestian esan bezala, batzuen eta besteen interesak errespetatzeko egokia izan daiteke arau, irizpide, eskakizun edota praktika linguistikoak egoera soziolinguistikoaren arabera egokitzea.

Errespetua-tolerantziaren izenean, ezinbestekoa da etnozentrismo linguistikoarekin bukatzea eta erdaldunak eta euskaldunak elkar ezagutzeko

Hizkuntza Eskubideak Euskal Herrian. Deustuko Unibertsitatea, Giza Eskubideen Institutua, 34. zenbakia.

²³ Jose Maria Setienek zioen bezala: «Entiendo que el sujeto radical de todo derecho es la persona, pero hay derechos que hacen referencia a su vida individual y hay derechos que hacer referencia a su vida social. Esos derechos que se refieren a la vida social son también derechos humanos, pero no en el sentido de defender a la persona sino en el sentido de defender el conjunto de relaciones sociales para que esa persona, tal como él quiere y tiene derecho a querer, pueda desarrollarse en esa dimensión que es la identidad de ese pueblo. Creo que los pueblos tienen también derecho a defender su legítima identidad» (*Talaia*, 1997:43-44).

ekimenak martxan jartzea. Are gehiago, erdaldunei euskal munduari buruzko informazio gehiago eman behar zaie. Izan ere, hizkuntza gatazkaren oinarrietariko bat da erdaldun askok euskararen munduari buruzko ezagutza gutxi dutela.

Justizia

Justiziaren izenean onartu beharko dugu:

- Euskararen aldeko politikak bultzatzea justiziaz jokatzeko dela. Izan ere, era honetako politikek ahalbidetuko dute euskararen eta erdaren arteko desorekak eta desberdintasunak murriztea.
- Euskara gutxitutako hizkuntza dela, eta etorkizunean ere bizitzeko funtzio eta eremu gehiago eskuratzeko beharra eta eskubidea dituela.

Justiziaren izenean, beharrezkoak dira euskararen aldeko politikak martxan jartzea eta politika publikoak egitea.

8. Ondorioak

Euskaraz bizi direnen eta erdaraz bizi direnen arteko gatazka guztiz gainditzea ezinezkoa dela onartuta ere, iruditzen zaigu posible dela hauen arteko bizikidetzaren hobegotzea.

Horretarako, ezinbestekoa da arau argiak izatea. Baina arau horiek barneratuak eta errespetatuak izateko, balio etikoetan oinarritutako diskurtsoak behar ditugu.

Gure ustez, hizkuntza-bizikidetzaren aldeko diskurtso berria egia, askatasuna, errespetua-tolerantzia eta justizia balio etiko-moraletan oinarritu beharko litzateke. Izan ere, lau balio horiek kontzientzietan barneratuz, modu kritiko eta zintzoan norberarentzako zein besteentzako onena bilatzeko joera barneratzen dugu, gizakien eta hizkuntza-komunitateen duintasunean oinarritutako elkarbizitza hobegotzen eta errazten da, eta, ondorioz, baita elkarbizitza linguistikoa ere.

Modu berean, hizkuntzen inguruan egiten den edozein arau, plangintza edo politika eraginkorra izango da partekatuak diren eta uneko aldaketen gainetik mantenduko diren balio etikoetan oinarritzen bada. Izan ere, oinarri etikoa duten arauak, plangintzak eta politikak errazago barneratzen dira, eraginkorrakoak dira eta denboran irauten dute (balio etiko-moralek sortzen dituzten arauak ez dira nahitaez bete beharrekoak, eta ez dago kanpoko zigorrak, baina badago kontzientziak sortzen duen barne zigorra arau horiek betetzen ez dituztenentzat). Aldiz, zigor hutsean oinarritzen diren hizkuntza politikek aurrera ateratzeko arazo gehiago izaten dituzte eta uneko aldaketa politikoekin bertan behera gelditzeko arriskua izaten dute.

Gure ustez, balio etikoetan sortu behar den diskurtso berri horrek balio beharko luke ez bakarrik espainolaren, frantsesaren eta euskararen arteko bizikidetzaren hobea izateko, baita azkeneko urteetan gure herrira bizitzera etorri diren etorkinen hizkuntzekiko harremanak hobea izateko ere.

9. Bibliografia

AMORRORTU, E., ORTEGA, A., IDIAZABAL, I., eta BARREÑA, A., 2010, *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

ARRIZABALAGA, J., 1989, «XVIII. mendeko irudi estetikoak», *Baloreak Gizartean*. Bilbo: UEUko filosofia Saila, 93-110 orrialdeak.

AYERBE, E. eta GARMENDIA, F., 2003, «Ética y Convivencia» in Garmendia, F. eta Setien, J.M., 2003: *Pueblo Vasco y Soberanía. Aproximación histórica y reflexión ética*. Lasarte-Oria: Etor-Ostoa.

AZURMENDI, J., 1997, *Demokratak eta biolentoak*. Donostia: Elkar.

CABRERA, M. A., 2001, *Historia, lenguaje y teoría de la sociedad*. Madril: Cátedra.

CALVET, L., 1999, *La guerre des langues et les politiques linguistiques*. Paris: Payot (Hachette).

COYOS, J. B., 2010, «Hizkuntza-ukipena», in Zarraga, A.; Coyos, J-B; Hernandez, J.M.; Joly, L.; Larrea, I.; Martinez, L.V.; Uranga, B. eta Bilbao, P.: *Soziolinguistika Eskuliburua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

COYOS, J.B., «Hizkuntza Ukipena». *Auñamendi Eusko Entziklopedia*: <http://www.euskomedia.org/aunamendi/ee152063/137078>

DAHRENDORF, R., 1971, *Elementos para una teoría del conflicto social*. Madril: Tecnos.

ERIZE, X., 1997, *Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza. Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936)*. http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Xabier_Erize_Etxegarai_TESI.pdf

ERIZE, X., 2011, «Hizkuntza ekologiatik iraunkortasunera: indarguneak, ahulgu-neak eta proposamenak», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 81. zenbakia, 2001-4, 67-86 orrialdeak.

ETXEBARRIA, L., 2002, «Euskaldunon Hizkuntza Eskubideak», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 45. zenbakia.

Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2012, V. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza-gaitasuna. Transmisioa. Jarrera. Erabilera. http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-17894/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/encuestas_sociolinguisticas.html

Eusko Jaurlaritza, 2009, IV. Mapa Soziolinguistikoa. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Eusko Jaurlaritza, Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2015, *Euskara. Jarrerak eta Iritziak*. Vitoria-Gasteiz: http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/o_14tef7/eu_def/adjuntos/14tef7.pdf

FISHMAN, J., 1972, *The sociology of language. An interdisciplinary social science approach to language in society*. Massachusetts: Newbury House Publishers.

FISHMAN, J., 2001, *Can threatened languages be saved? Reversing Language Shift, revisited: a 21st century perspective*. Clevedon: Multilingual Matters.

GARMENDIA, F., 2003, «La soberanía en relación al Pueblo Vasco: Dos siglos de confrontación (1802-2002). Aproximación histórica» in Garmendia, F. eta Setién, J.M., 2003, *Pueblo Vasco y Soberanía*. Donostia: Etor-Ostoa.

GARMENDIA, H., 2015, «Euskara eta bozka abertzalearen arteko lotura», Jakin, 208. zenbakia, Lasarte-Oria.

IZTUETA, P., 2003, «Identitate kulturala eta boterea», Uztaro, 47. zenbakia, 97-110 orrialdeak.

KASARES, P., 2004, *Hizkuntza Eskubideak Euskal Herrian*, Deustuko Unibertsitatea, Giza Eskubideen Institutua, 34. zenbakia.

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua, 2011, *Ildoen Azterketa eta Zehaztapena 2011-2016*.

LAPONCE, J., 1990, «Irtenbide pertsonalak eta lurralde-irtenbideak estatu eleantunaren arazoan aurrean», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 2. zenbakia, 23-47.

LINDBEKK, T., 1992, «The Weberian Ideal-Type: Development and Continuities», *Acta Sociológica*, 35. zenbakia, 285-297 orrialdeak.

MARTINEZ DE LUNA, I., 2010, «Framing: komunikazio-teorietatik euskararen beharizanetara. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 76 (53-67).

MARTINEZ DE LUNA, I., 2011, «Euskararen inguruko diskurtso berria Arabarako: gogoeta eta proposamena», *Euskera*, 56-3 (589-652).

MARTINEZ DE LUNA, I., ERIZE, X., AKIZU, B., ETXANIZ, J. eta ELIZAGARATE, A., 2015, *Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoen lanketa (EGOD egitasmoa)*. *Azken Txostena*, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. http://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/euskara_gainean/eu_def/adjuntos/EGOD_EU.pdf

MOLLÁ, T., 2005, *Manual de sociolingüística*. Alzira: Ediciones Bromera.

ODRIOZOLA, J.M., 2015, «Formulazio politikoaren bila», *Jakin*, 208. zenbakia, Donostia.

SANCHEZ CARRION, J.M. «Txepetx», 1987, *Un futuro para nuestro pasado: Claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*. Donostia: Egileak berak argitaratua.

SANCHEZ DE PUERTA, F., 2006, «Los tipos ideales en la práctica: significados, construcciones, aplicaciones». *Empiria: Revista de metodología de ciencias sociales*, 11. zenbakia, 11-32 orrialdeak.

TALAIA HAUSNARKETARAKO ALDIZKARIA, 1997, «Sabater y Setién. Un diálogo sobre ética», *Talaia Hausnarketarako Aldizkaria*, 1. zenbakia, Zarautz, 8-58 orrialdeak.

TERRICABRAS, J.M., 2001, «Hizkuntza hautatzeko askatasunaren mitoa». *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 41. zenbakia.

TORREALDAI, J.M., 1998, *El libro negro del Euskera*. Donostia : Tarttalo.

URRUTIA LIBARONA, I., 2005, *Derechos lingüísticos y euskera en el sistema educativo*. Iruñea: Lete Argitaletxea.

WEBER, M., 1982, *Ensayos sobre metodología sociológica*. Buenos Aires: Amorrortu Editores.

SETIEN, J.M., 2004, *Bases éticas para la paz*. Lasarte-Oria: Etor-Ostoa.

ZARRAGA, A., 2010, «Soziolingüistikari Sarrera» in Zarraga, A.; Coyos, J-B; Hernandez, J.M.; Joly, L.; Larrea, I.; Martinez, L.V.; Uranga, B. eta Bilbao, P.: *Soziolingüistika Eskuliburua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.